

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN

KANPAINA 2014

Danok misiolari, sal de la tierra, luz del mundo



Pablo Sanaguano

ELIZBARRUTIKO MISIOEN ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, 4 Entreplanta – 48005 BILBAO

Teléfono: 94 401.36.99; Fax 94 401.36.98

e-mail: misiobi@misoak.org

Agur t'erdi!

Dakizuenek, gure Eleizbarrutian SAN JOSE egunaren inguruan ospatzen dogu ELEIZBARRUTIETAKO MISIONEN eguna. Aurton, hain zuzen be, martxoaren 16an izango da, goiburua honen pean.

“Danok misiolari, sal de la tierra, luz del mundo”.

Gotzainek egun honetarako mezuan esandako berba batzuk azpimarratu gura dodaz: “Lekuko hau (gatz, argi, maitasun eta errukiaren testigantza izan diran hainbeste gizon eta emakume misiolariarena) belaunaldi barrien esku izteko konpromisoa hartu behar dogu, argia handitu eta indartsu hedatu daiten... Belaunaldi barriei misinoak sustatzeko gogoia, Ebanjelizatzearen eta guztiei Jainkoaren bizia eta itxaropena agertzera emotearen poztasuna kutsatzeko gauza izan gaitezala eskatzen deutsagu Jainkoari”.

Berba honeek adorea emoten deuskue gure ibiltaldian, misiolari egitekoak aurrez aurre dituan erronketarako eta eleizbarrutian Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmo barria eratu guran gagozanean.

Honako honegaz batera, kanpainarako lagungarri desbardinak eskaintzen deusueguz.

- Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainen idazkia, egun honen inguruan.
- Eleizbarrutiko Misinoek prestatutako liturgi lagungarriak.
- Umeen katekesia (7-12 urte).
- Eguneko kartelak (Ordezkaritzan gehiago eskatu daikezue).
- Parrokien sarrerak jasoten dituan ekonomia txostena.

2013ko oroitza-txostena ‘Los Ríos’ aldizkarian txertatu dogu. Bertan ikusi ahal izango dozue zer egiten dogun, ze egitasmo babesten dogun eta diru-sarreraren erabileraren ingurukoak.

Beste urte batzuetan lez, gure artean izango dira HEGOALDEKO AHOTSAK. Euren fedearen eta konpromisoaren barri emongo dabe eleizbarrutiko esparru desbardinetan.

Kanpainaren inguruko barri gehiago behar izan ezkeru, web orrialdera jo: www.bizkeliza.org

Aldez aurretik, eskerrik asko zuon arreta eta eskuzabaltasunagaitik.

Besarkada bat,

Felicitas Martín Fernández
Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkarria

GOTZAINEN IDAZKIA ELIZBARRUTIKO MISIOEN EGUNA DELA ETA.

DENOK MISIOLARI: SAL DE LA TIERRA Y LUZ DEL MUNDO.

1. Euskal Elizbarrutietako Misioen Eguneko aurtengo kanpaina gatz eta argiari buruzko pasarte ebanjelikoa lantzea proposatzen zaigu. Hain zuzen ere, Mateok zoriontasunen aldarrikapenen, hau da, mendiko hitzaldiaren ostean ipintzen du idazki hau. Gatzaren eta argiaren irudiek Jesusen ikasle bezala bizitzeko deia jaso dutenen bizimodua islatzen digute: “Zuek zarete munduarentzat gatz. Baina gatz geizatu bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, botatzeko baizik eta jendeak zapaltzeko” (Mt 5, 13). Gatzak ustelkeriatik babesten du. Itun Zaharreko sakrifizioetan Jainkoak Gizadiarekin zuen Itunaren bortxaezintasuna adierazten zuen. Kristau jarduteak uneoro erakutsi behar du Jainkoak gurekin duen betiereko itun hau. Berak gogoan ditu babesgabea eta behartsua, zapaldua eta alarguna babestu egiten ditu, graziaren eta salbamenaren urtea iragartzen du. Jainkoaren Erreinuaren hazkuntza dakarren munduan egoteko era honek ematen die jainkozko kutsua giza alderdi guztiei, mundua usteltzea galarazten du eta bere barru-barrutik Jainkoaren ekintza ernarazten du, legamiak orean egiten duen bezala.

2. Antzeko hitzez aipatzen da argia ere: “Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria” (Mt 5, 14). Argia ezinbestekoa da ikusteko, ibiltzeko, bereizteko, bizitzeko. Argiarena, oso gustuko irudia da Jesusentzat eta Itun Zaharrean ere hamaika pasartetan agertzen da: “Jaiki, Jerusalem, egizu distira, badator eta zure argia: Jaunaren aintza zure gain ageri da! Ikus, ilunpetan dago lurra, gau beltzean herriak; zure gain, ordea, Jauna ageri da, haren aintza zure gain nabari” (Is 60, 1-2). San Joanen Ebanjelioaren hitzaurrean, “argi honek ilunpetan egiten du argi” (Jn 1, 5) esaten da. Eta argiaren lekukoaz hitz egiten du, hain zuzen ere, Joan Bataiatzaileaz: “Ez zen hura argia, argiaren testigantza egin behar zuena baizik” (Jn 1, 8). Kristo da munduan argi egiten duen eta mundura datorren benetako argia (ik. Jn 1, 9). Eta Joan Ebanjelariak diosku zein den argia den Hura onartzearen eragina: “Onartu zuten guztiei, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odolekoak, ezta gizakiaren borondatez sortuak ere, Jainkoarengandik jaioak baizik” (Jn 1, 12. 13).

3. Hau da, argia nork bere egiteak maitasun berritik, Jainkoaren maitasunetik birsortzea adierazten du. Uretik eta Espiritutik berriz jaiota, Jaunak Nikodemori iragarri zionez: “berriro jaio behar duzue” (Jn 3, 7). Eta jaiotza berri honek fedea dakarren Jainkoaren seme-alaba izate hori birsortu egiten du guregan. Jainkoaren seme eta alaba izatea ahalbideratzen du. Fedea eragindako eta, aldi berean, besteengan fedea, Jainkoari atxikitzea eta ikasle bezala Haren atzetik joatea eragiten duen lekukotasuna jasotzen denean hartzen da argia. “Zuek zarete munduarentzat argia”, Jainkoarena den argiaren, anai-arrebena den giza hartu-eman berriaren, argiaren egintzen bidez agertzera ematen den Jainkoaren maitasunean den bizimodu berriaren eramaileak. “Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten” (Mt 5, 16). Hortxe dago misiolari deia. “Zuen argiak egin behar du argi”. Guztiok gara misiolariak, argiaren

eramaileak. “Zuen egintza onak ikus ditzatela”. Kontua ez da egintza onengatik harropuztea edo harrotasunez betetzea. Aitzitik, egintza hauek Jainkoaren pozerako dira, bere grazia, bizia eta errukia iragartzen dituztelako. Isaiasek hots egindako (Is 61, 1-2) eta Jesusek Nazareteko Sinagogan iragarritako Jubileuaren, Jaunaren Urte Santuaren iragarpina da: “Jaunaren espiritua nire gainean dago, berak bainau sagaratu behartsuei berri ona adierazteko; berak nau bidali gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera eta zapalduak askatzera, Jaunak onginahia azalduko duen urtea hots egitera” (Lk 4, 18-19).

4. Euskal Elizbarrutietako Misioek hirurogeita bost urtetik gora daramate lurrarentzako gatz, munduarentzako argi, konpromiso eta lekukotasun misiolari izaten. Eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari gatz, argi, maitasun eta errukiaren testigantza izan diren hainbeste gizon eta emakume misiolariaren eskaintza pairamentsu eta sakrifikuaren bitartez urte luzez argi egin duen argi-zuziagatik. Lekuko hau belaunaldi berrien esku uzteko konpromisoa hartu behar dugu, argia handitu eta indartsu hedatu dadin. Frantzisko Aita Santuak “Ebanjelioaren poza” burubide apostolikoan, misio egoeran jartzeko eskatzen digu Eliza osoari. Elkarre ebanjelizatzaileak egintzez eta keinuez besteen eguneroko bizitzan sartu egin behar duela, tartek murriztu egin behar dituela, behar izanez gero, apalkuntzaraino behertu egin behar duela, eta Kristo oinazetsuaren haragia herriarengan ukituz giza bizitza bere egin behar duela diosku. Ebanjelizatzaileek «ardi-usaina» dute horrela eta ardiek beren ahotsa entzun egiten dute. “Dena eraldatzeko gauza den aukera misiolaria dut amets, horrela ohiturak, estiloak, ordutegiak, hizkera eta eliz egitura osoa bere burua gordetzeko ez ezik gaurko munduaren ebanjelizazioarako bide egoki bihurtu daitezten” (27. zenb.).

5. Euskal Elizbarrutietako Misioen kanpaina berri honek lagunduta, jabe gaitzela gure kristau bokazioaren misiolari alderdiaz; entzun dezagula Berri Onaren lekukotasuna ematen duten eta Jainkoaren Erreinua eraikitzen duten ekintzen bitartez lurrarentzako gatz eta munduarentzako argi izateko deia. Gure otoitzarekin eta laguntasun materialarekin lagun dezagun garapen bidean dauden herrialdeetako elizbarrutietan jarduten duten misiolarien beharrak asetzen. Belaunaldi berriei misioak sustatzeko gogoia, Ebanjelizatzearen eta guztiei Jainkoaren bizia eta itxaropena agertzera ematearen poztasuna kutsatzeko gauza izan gaitzela eskatzen diogu Jainkoari. Maria Ebanjelizazioaren izarra bidelagun izan dezagula misiolari bidean.

Anai besarkadaz,

+ Mario, Bilboko Gotzaina

+ Jose Ignacio, Donostiako Gotzaina

+ Miguel, Gasteizko Gotzaina

Garizuma aldiko 2. Domekea A EUSKAL ELEIZBARRUTIETAKO MISINOAK

“DANOK MISIOLARI: SAL DE LA TIERRA, LUZ DEL MUNDO”

SARRERA:

Egun on (arratsalde on).

Jesus gure bizitzatik igaro zala gogoratzen dogun Garizuma aldiko bigarren domeka honetako irakurgetan kristinatu eta misiolari bokazinoa, Jesusen jarraitzaile izatea goratzen dabe.

“DANOK MISIOLARI: SAL DE LA TIERRA, LUZ DEL MUNDO” goiburu esanguratsua aukeratu dabe egun honetarako. Misinora bialduak garala, gure egiteko guztiak Barri Onaz busti behar doguzala esaten jaku.

Gogoan doguz gure misiolariak, euren jarduera eskuzabalaren jasotzaile diran herri eta alkarteak eta gure eleizbarrutiak, aurrerantzean be alkartasunez jokatu daien.

Adorez beteta bizi daigula eukaristia hau eta gure misiolari bokazinoa.

AGURRA:

Ondo etorriak misinoren eguneko Eukaristia honetara. Biziaren Jaungoikoa, zuekin.

DAMU OTOITZA:

- Jaungoikoaren maitasuna erakusten deuskuzu. ERRUKI, JAUNA.
- Maitasuna eta zerbitzua nabarmentzen dozuz. KRISTO, ERRUKI.
- Errukia eta batasuna suspertzen dozuz. ERRUKI, JAUNA.

OHARRA HITZARI:

Etiketetik atera eta bizia Ebanjelioaren eta Erreinuaren arriskatzek Jaungoikoaren Hitzaz fidatu egiten garala eta bere egitasmoek sekula ez deuskuela huts egingo adierazoten dau. Tabor mendian Jesusi entzun eta bere indarra jaso ondoren, eguneroko bizitzan lekuko samariar izatera bialtzen gaitu. “Inork ez dau bere bizia anai-arreben alde emoten dauanak baino maitasun handiagorik”.

IRAKURGAIK:

Has 12, 1-4a
2 Tim 1, 8b-10
Mateo 17, 1-9

BERBALDIRAKO ARGIBIDEAK:

Misiolari jardunaldi honetan lagungarri izan daitekezan argibide batzuk eskaintzen doguz hausnarketa desbardinetatik.

➤ *“Danok misiolari: sal de la tierra, luz del mundo”, da Euskal Eleizbarrutietako Misinoren aurtengo kanpainarako aukeratutako goiburua.*

Lurraren gatzia eta munduaren argia izatea. Horretan datza misinoa: Jesus eta bere egitasmoagaz bat egitea; oinazeari aurre egiteko eta saihesten saiatzeko konpromisoa. Horregaitik, behin eta berriro dinogu gure eleizbarrutiek, Jesusen Eleiza izango badira, misiolari izan behar dabela. Hain zuzen be, bere baitatik atera eta mugetara joateko gauza ez dan alkartea, Eleiza, ez da Jesusen jarraitzailea.

Garrantzitsuena, Erreinua Iparraldean eta Hegoaldean ereitea eta eraikitzea da, Barri Ona sufritzen dabenen artean, jente-andana horren artean, iragarritz, Jaungoikoa mundu honetatik igaro egiten dala erakutsiz eta egiaztatuz.

Eleizbarruti misiolariak gara; danok gara misiolariak. Persona batzuk misino lurraldeetara bialtzen doguz eta babesa emoten deutsegu; hemendik laguntzen deutsegu; bat egiten dogu eurakaz. Bere baitatik ateraten dan, bideari ekiten deutson eta behartsuenengana heltzen saiatzen dan Eleiza gara.

Gure Eleizbarrutietako Misinoen eguna da. 1948tik aurrera Hego Amerikako eta Afrikako lurralde batzuetan bidea egiten dihardugu mundu honetako behartsuenen zerbitzura. Ez dogu lehenean geratu gura; barritze aldi gagoz elizbarrutiarteko misiolari egitasmoari jagokonez; urratsak emoten dihardugu gure eleizbarrutietako errealidade, egoera eta aukera barrietara moldatzeko.

➤Frantzisko Aita Santuak behin baino gehiagotan esan deusku bere arreta nagusia behartsuen sufrimentuan jarri gura daua, Jesusek egin eban lez. Erromako Gotzain lez Eleizaren zerbitzari lanetan ari dan hilabete honeetan, Ebanjelioan oinarritu ditu bere gogoetak. Eten barik dihardu Jesusi buruz, Jesusen esan eta egin ebanari buruz hitz egiten. Bere bizitzari zentzuna emoten deutsan Jesusegaz bat eginda dago.

Hona hemen bere ale eder batzuk Eleizari, Ebanjelizazinoari eta Misinoari buruz:

"Misiolari jardueria Eleizaren egintza oren paradigma da".

"Gaur egun, ezinbestekoa da Eleizea Barriona danei, leku eta aukera guztietan, atzerapen, nazka eta bildur barik iragartera urtetea, iraina be jasanez, behar izan ezker".

"Eleizak danengana heldu behar dau, baina batez be behartsu eta gaixoengana, mesprezua eta ahaztea jasaten dabeanengana".

"Larregizko zentralizazioak, lagundu ez ezik, Eleizaren bizitza eta bere dinamika misiolaria korapilatu egiten dau".

"Nahitaezkoa da eleiz egituren erreforma, misiolariago bihurtu daitezana".

"Nahitaezkoa da gauzak bere horretan itziko ez dituan pastoral eta misiolari bihurtzea".

"Ebanjelizazinoak funtsezkoenean, ederrenean oinarritu behar dau".

"Eukaristia ez da perfektuentzako saria, makalentzako sendabide eta sustagarri oparoa baino".

JAINKO HERRIAREN OTOITZA:

A.- Jaungoikoaren errukian uste osoa jarrita, gure beharrianak aurkeztuko deusaguz. Erantzuna: **Zeugana bihurtu gaizuz, Jauna.**

1. Eleizaren alde: Jesusenganako fedearen bizipenak Jaungoikoaren maitasuna beti izango dogula sinistuta, bateatu eta kide guztiok misiolari izan gaitezak. Egin daigun otoitz. ***Zeugana bihurtu gaizuz, Jauna.***
2. Alkartasun eta misino taldeen alde, lurreko txirotuen aldeko misiolari konpromisoa geure egiten lagundu deiguen. Egin daigun otoitz. ***Zeugana bihurtu gaizuz, Jauna.***
3. Misiolarien alde, euren ereduak antzerako jokabidea izatera bultzatu gaizan. Egin daigun otoitz. ***Zeugana bihurtu gaizuz, Jauna.***
4. Misiolarien bitartez misinoetan anai-arreba bihurtu jakuzan guztien alde, gure konpromiso eta hurkotasuna sentitu daiezan. Egin daigun otoitz. ***Zeugana bihurtu gaizuz, Jauna.***
5. Gu guztion alde, Jaungoikoaren hitzak antzaldatuta, gizon eta emakume barri bihurtu gaitezak, misiolari izateko eta erosotasun eta ohikeriei uko egin eta babesa, salaketa... eskaintzeko. Egin daigun otoitz. ***Zeugana bihurtu gaizuz, Jauna.***

A.- Jaungoiko Aita-Ama, Berbizkundearen argitan ulertu daigula nekaldia eta oinazea nahitaezkoak dirala Pazkoaren bizitza osora igaroteko. JGJB.

OPARIAK:

Makila:

Jauna, hona hemen makila hau. Batzuetan agintea adierazo izan dau, baina gaur neke edo gaixotasunean laguntza izan daitela gura dogu.

Kandela biztuta:

Biztutako kandela honegaz kristinauok izan gura doguna islatu nahi dogu: ARGIA MUNDUAN, misiolari jardunaldi honetarako goiburuak dinoskunez.

Platera edo kaikua qatzagaz:

Jesus, zauriak sendatzen dituan, jatekoari gustua emoten deutzan eta itsasoko ura usteltzea galarazoten dauan gatzaren antzekoak izan behar dogula dinoskuzu. Egiten dogun guztiari Barri Onaren gustua emon gura deutzagu, poza, bakea eta maitasuna zabalduz gure ingurukoen eta munduko behartsuen artean.

Ogia eta ardaoa Eukaristiarako:

Eukaristiaz elikatu barik, ezinezkoa litzateke Jaungoikoaren seme eta alaba lez bizitzea. Ogi eta ardao honek emon deiguela Jesusen Barri Ona iragarteko indarra eta adorea.

ESKERRONA – ESKERRAK BIZIAREN JAUNGOIKOARI

“Eskerrik asko hainbeste emon deustan bizitzari”, abesten dau olerkariak.

“Eskerrik asko Biziazen Jaungoikoari”, errezatzen dogu sinistedunok.

Eskerrik asko, Jaungoiko Aita-Ama, Nazareteko Jesusengan bizi hauskor eta eskaintza bihurtutakoa, munduko jente onagan ezagutzera emoten jakuna.

Eskerrik asko Erreinuaren hazi diran kristinau alkarteei, Erreinuaren alde bizia oparo emoten dabenei.

Eskerrik asko hemengo eta hango misiolariak parte hartzen dabenei Eleizari, alkarte ardurakide, abegitsu, askatzaile, samariar, hurko eta konprometituari.

Eskerrik asko, bihotzez, BIZIAREN JAUNGOIKOA, ilusinoz eta eskaintzaz bizitzen laguntzen deuskun hainbeste errealidadetan dagoana!

Bizia eta Jaungoikoa, txanpon beraren alde biak, maitasunean eta maitasunez buztartutako esperientzia bi. ESKERRIK ASKO, AITA ONA, BIHOTZ-BIHOTZEZ!

EUSKAL ELEIZBARRUTIETAKO MISINOEN KANPAINA **JARDUERAK ELEIZBARRUTIETAKO MISINOEN KANPAINARAKO**

1.- Kanpaina Barriako Kuriako Ordezkaritzeari, parrokiarako pastoral arduraduneari eta ikastetxeeari aurkezteko batzarra otsailaren 27an, goizeko 10:30etan, Barrian.

Antolatutako jarduera desbardinaren barri emon, misiolari sustapenak pastorgintza guztia zeharkatu daian.

2.- PRESTAKUNTZA-TAILERRAK kanpainarako goiburuari buruz misinoetarako taldeetan eta ikastetxeetan Hegoaldeko ahotsakaz.

3.- MISIOILARI OTOITZALDIA Afrikan egon izan diran misiolariak lagunduta, martxoaren 8an, zapatuz.

Lekua: Begoñazpi ikastola.

Dei egiten jake eleizbarrutiari, Afrikaren ikuspuntutik kanpainarako goiburuaren inguruan hausnartzeko. Gure konpromiso misiolariaren inguruan gogoeta egin.

4.- ERRETIROA IPARRALDE-HEGOALDEA IKASTAROKO taldeagaz martxoaren 16-17an.

5.- Iparralde-Hegoaldea SENTSIBILIZAZIO-ASTEAREN irakasle eskolan.

HEGOALDEKO AHOTSAK

Aurton, Ekuador eta Peruren arteko mugan dagoan Huaquillaseko lagun bi izango dira Hegoaldeko ahotsak: Giza Eskubideetarako eleizbarrutiko batzordean dagoan Lucho Campoverde eta Vicente Robles (Viche) pastoral ekintzailea eta baita Rwandako Epiphany Ndekerumukobwa.

MISIONES DIOCESANAS VASCAS

CAMPAÑA 2014

Danok misiolari: sal de la tierra, luz del mundo



Pablo Sanaguano

DELEGACION DIOCESANA DE MISIONES

Plaza Nueva, 4 Entreplanta – 48005 BILBAO

Teléfono: 94 401.36.99; Fax 94 401.36.98

e-mail: misiobi@misioak.org

Un cordial saludo.

Como ya sabéis, en nuestras Diócesis, celebramos el día de las MISIONES DIOCESANAS en fecha cercana a SAN JOSE en este año será el día 16 de marzo. El lema para este año es:

“Danok misiolari: sal de la tierra, luz del mundo”.

Quiero destacar unas palabras de nuestros obispos en la carta de este día “Nos debemos comprometer a pasar este testigo (de tantos misioneros y misioneras que han sido sal y luz, testimonio de amor y misericordia) a las nuevas generaciones para que esta luz acreciente y se propague con mayor vigor... pedimos a Dios que seamos capaces de contagiar a las nuevas generaciones el entusiasmo por la misión, la alegría de Evangelizar y de comunicar a todos la vida y la esperanza de Dios.”

Son palabras que nos alientan en nuestro caminar, ante los grandes desafíos de la tarea misionera y cuando nos estamos planteando en la diócesis el nuevo reto de un nuevo Plan Diocesano de Evangelización.

En las hojas que siguen os ofrecemos los diferentes materiales para la campaña.

- Carta de los Obispos de Bilbao, San Sebastián y Vitoria acerca de este día.
- Liturgia específica de Misiones Diocesanas.
- Catequesis de infancia (7-12 años).
- Carteles alusivos al Día (en la Delegación podéis pedir más)
- Informe económico con la relación de ingresos por parroquias.

La Memoria 2013 esta inserta este año en la Revista Los Ríos. En ella encontraréis lo que hacemos, así como los proyectos que apoyamos y el informe económico sobre la utilización de los ingresos económicos.

Al igual que otros años contaremos con la presencia de LAS VOCES DEL SUR, compartirán su experiencia de fe y compromiso en sus comunidades en diferentes ámbitos diocesanos.

Podéis encontrar más información de las actividades de la campaña en www.bizkeliza.org

De antemano, gracias por vuestra atención y generosidad.

Un abrazo.

Feli Martín Fernández
Delegada Diocesana de Misiones

CARTA DE LOS OBISPOS - CAMPAÑA DE MISIONES DIOCESANAS VASCAS

DANOK MISIOLARI: SAL DE LA TIERRA Y LUZ DEL MUNDO.

1. En la campaña para el Día de las Misiones Diocesanas Vascas del presente año, se nos propone el texto evangélico sobre la sal y la luz. Curiosamente, Mateo sitúa el texto inmediatamente después de la proclamación de las bienaventuranzas, es decir, en el discurso de la montaña. Las imágenes de la sal y de la luz muestran el modo en que deben vivir quienes han sido llamados al discipulado de Jesús: “Vosotros sois la sal de la tierra, pero si la sal se vuelve sosa, ¿con qué la salarán? No sirve más que para tirarla fuera y que la pise la gente”. (Mt 5, 13). La sal preserva de la corrupción. En los sacrificios de la Antigua Alianza significaba la inviolabilidad de la Alianza de Dios con la Humanidad. El obrar cristiano debe mostrar en todo momento esta perenne alianza de Dios con nosotros. Él se acuerda del desvalido y del pobre, protege al oprimido y a la viuda, proclama el año de gracia y de salvación. Este modo de estar en el mundo, obrando el crecimiento del Reino de Dios, es lo que da sabor divino a todo lo humano, lo que impide que el mundo se corrompa y lo que hace brotar desde su interior la acción de Dios, como la levadura en la masa.

2. De modo semejante, se nos habla de la luz: “Vosotros sois la luz del mundo. No se puede ocultar una ciudad puesta en lo alto de un monte”. (Mt 5, 14). La luz es necesaria para ver, para caminar, para discernir, para vivir. Es una imagen muy querida por Jesús, ya utilizada ampliamente en el Antiguo Testamento: “¡Álzate, brilla, Jerusalén, que llega tu luz, la gloria del Señor amanece sobre ti! Mira, las tinieblas cubren la tierra, la oscuridad los pueblos, pero sobre ti amanecerá el Señor, su gloria aparecerá sobre ti” (Is 60, 1-2). En el Prólogo del Evangelio de San Juan se habla de la “luz que brilla en las tinieblas” (Jn 1, 5). Y habla de un testigo de la luz, que es Juan el Bautista: “No era Él la luz, sino que daba testimonio de la luz” (Jn 1, 8). Es Cristo la luz verdadera que alumbra y viene al mundo (Cfr. Jn 1, 9). Y Juan Evangelista nos dice cuál es el efecto de acoger a Quien es la luz: “A cuantos lo recibieron, les dio poder de ser hijos de Dios, a los que creen en su nombre. Estos no han nacido de sangre, ni de amor carnal, sino de Dios” (Jn 1, 12. 13).

3. Es decir, acoger la luz significa renacer de un amor nuevo, del amor de Dios. Renacidos del agua y del Espíritu, como anunció el Señor a Nicodemo: “Hay que nacer de nuevo” (Jn 3, 7). Y este nuevo nacimiento recrea en nosotros la filiación divina que conlleva la fe. Es el poder de ser hijos e hijas de Dios. La luz se acoge cuando se recibe el testimonio movido por la fe y que suscita, al mismo tiempo, la fe en los demás, la adhesión al Señor y su seguimiento en el discipulado: “Vosotros sois la luz del mundo”, portadores de una luz que es de Dios, de una nueva relación humana, que es la de los hermanos, de un modo nuevo de vivir, que es en el amor de Dios, testimoniado con las obras de la luz. “Brille así vuestra luz ante todos, para que vean vuestras buenas obras y den gloria a vuestro Padre que está en los cielos” (Mt 5, 16). Esta expresión constituye la llamada misionera. “Brille así vuestra luz”. Todos somos constituidos misioneros, portadores de luz. “Que vean vuestras buenas obras”. No se trata de ensoberbecerse o enorgullecerse por las obras buenas. Sino todo lo contrario, estas obras dan gloria a Dios porque anuncian su gracia, su vida y misericordia. Es el anuncio del jubileo, el año de gracia del Señor preconizado por

Isaías (Is 61, 1-2) y anunciado solemnemente por Jesús en la Sinagoga de Nazaret: “El Espíritu del Señor está sobre mi, porque Él me ha ungió. ME ha enviado a evangelizar a los pobres, a proclamar a los cautivos la libertad, y a los ciegos la vista; a poner en libertad a los oprimidos; a proclamar el año de gracia del Señor” (Lc 4, 18-19).

4. Las Misiones Diocesanas Vascas llevan más de sesenta y cinco años siendo sal de la tierra, luz del mundo, compromiso y testimonio misionero. Damos gracias a Dios por la antorcha de la luz que durante tantos años ha iluminado por medio de la entrega abnegada y sacrificada de tantos misioneros y misioneras que han sido sal, luz, testimonio de amor y misericordia. Nos debemos comprometer a pasar este testigo a las nuevas generaciones para que esta luz se acreciente y se propague con mayor vigor. El Santo Padre Francisco, en su exhortación apostólica “La alegría del Evangelio”, pide a toda la Iglesia que nos pongamos en estado de misión. Nos dice que la comunidad evangelizadora debe meterse con obras y gestos en la vida cotidiana de los demás, achicar distancias, abajarse hasta la humillación si es necesario, y asumir la vida humana, tocando la carne sufriente de Cristo en el pueblo. Los evangelizadores tienen así «olor a oveja» y éstas escuchan su voz. “Sueño con una opción misionera capaz de transformarlo todo, para que las costumbres, los estilos, los horarios, el lenguaje y toda estructura eclesial se convierta en un cauce adecuado para la evangelización del mundo actual más que para la autopreservación”. (nº 27)

5. Que esta nueva campaña de Misiones Diocesanas Vascas nos haga tomar conciencia de la dimensión misionera de nuestra vocación cristiana, de que todos estamos llamados a ser sal de la tierra y luz del mundo, de modo particular a través de nuestras obras que testimonian el Evangelio y construyen el Reino de Dios. Ayudemos a subvenir las necesidades de los misioneros y misioneras que trabajan en las diócesis hermanas de países en desarrollo con nuestra oración y colaboración material. Pedimos a Dios que seamos capaces de contagiar a las nuevas generaciones el entusiasmo por la misión, la alegría de Evangelizar y de comunicar a todos la vida y la esperanza de Dios. Que María, estrella de la Evangelización nos acompañe en el camino misionero.

Con un abrazo fraterno

+ Mario, Obispo de Bilbao
+ José Ignacio, Obispo de S. Sebastián
+ Miguel, Obispo de Vitoria

Domingo 2º de Cuaresma A - MISIONES DIOCESANAS VASCAS

“DANOK MISIOLARI: SAL DE LA TIERRA, LUZ DEL MUNDO”

ENTRADA:

Buenos días (buenas tardes).

En este segundo domingo de Cuaresma, *paso de Dios por nuestra vida*, las lecturas de la Palabra son un canto a la vocación cristiana y misionera, al seguimiento de Jesús.

“DENOK MISIOLARI: SAL DE LA TIERRA LUZ DEL MUNDO” es el sugerente lema de esta jornada misionera. Nos anima a sentir el envío a la misión, a dar sabor a Evangelio a cada una de nuestras tareas.

Encomendemos a nuestros misioneros y misioneras, a los pueblos y comunidades a los que sirven con generosidad, y a nuestras iglesias diocesanas para que sigan siendo solidarias.

Vivamos con ánimo esta eucaristía y nuestra vocación misionera.

SALUDO:

Bienvenidos, bienvenidas a celebrar la Eucaristía en esta jornada misionera, y que el Dios de la Vida esté siempre con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL:

- Tú que muestras el amor supremo de Dios. SEÑOR, TEN PIEDAD...
- Tú que pones la grandeza de la vida en el amor y en el servicio. CRISTO, TEN PIEDAD...
- Tú, promotor de misericordia y de comunión. SEÑOR, TEN PIEDAD...

INTRODUCCIÓN A LA PALABRA:

Salir de casa y arriesgar la vida por el Evangelio y el Reino supone fiarse de la Palabra de Dios y de que sus planes no fallan nunca. Después de escuchar a Jesús y recibir su energía en el Tabor, nos envía a ser testigos samaritanos en la vida diaria. “Nadie tiene más amor que el que da la vida por los hermanos”.

LECTURAS:

Gen 12, 1-4ª

2 Tim 1, 8b-10

Mateo 17, 1-9

REFERENCIAS PARA LA HOMILÍA:

Ofrecemos unas pistas, desde distintas reflexiones, que pueden ayudarnos en esta jornada misionera.

➤ El lema elegido para la campaña de Misiones Diocesanas Vascas este año es “*Denok misiolari: sal de la tierra, luz del mundo*”.

Ser sal de la tierra y luz del mundo. En eso consiste la misión, una adhesión a Jesús y a su proyecto, un compromiso por enfrentarse al dolor y tratar de evitarlo y por ello, queremos insistir en que nuestras diócesis deben ser misioneras para ser Iglesia de Jesús. De hecho, una comunidad, una iglesia que no es capaz de salir de sí misma e ir a las fronteras, no es seguidora de Jesús.

Lo importante es sembrar y construir el Reino, en el Norte y en el Sur, anunciando el evangelio entre los que sufren, que hoy son muchos, haciendo presente "el paso de Dios por este mundo".

Somos diócesis misioneras, todas y todos. Enviamos y apoyamos personas a otras tierras, les acompañamos desde aquí, nos sentimos uno con ellos y ellas. Somos Iglesia que sale de sí misma, que se pone en camino, que intenta llegar a los más pobres.

Es el día de nuestras misiones diocesanas. Desde el año 1948 venimos caminando en unos territorios concretos de América Latina y África al servicio de los más necesitados de este mundo. No nos queremos quedar en el pasado, vivimos un tiempo de renovación en lo que a nuestro proyecto misionero interdiocesano se refiere, estamos dando pasos para adaptarnos a la realidad, a las nuevas situaciones y posibilidades que tenemos en nuestras diócesis.

➤ El papa Francisco nos está diciendo en distintas ocasiones que quiere poner en el centro de sus preocupaciones, como lo hizo Jesús, el sufrimiento de los pobres. En los meses que lleva sirviendo a la iglesia como Obispo de Roma ha centrado sus reflexiones en el Evangelio. No para de hablar de Jesús, de lo que hizo y dijo Jesús. Está identificado con Jesús, que es el que llena de sentido su vida.

Ahí van unas perlas sobre la Iglesia, la Evangelización y la Misión que nos ha compartido:

"La actividad misionera es el paradigma de toda obra de la Iglesia".

*"Es vital que hoy la Iglesia salga a anunciar el Evangelio a todos, en todos los lugares, en todas las ocasiones, **sin demoras, sin asco y sin miedo**". Llegando "hasta la humillación si es necesario".*

*"La Iglesia debe **llegar a todos**, pero sobre todo a los pobres y enfermos, a esos que suelen ser despreciados y olvidados".*

*"Una **excesiva centralización**, más que ayudar, complica la vida de la Iglesia y su dinámica misionera".*

*"Es necesaria una **reforma de estructuras eclesiales** para que todas ellas se vuelvan más misioneras".*

*"Es necesaria una **conversión pastoral y misionera**, que **no puede dejar las cosas como están**".*

*"La evangelización se debe concentrar en **lo esencial, que es lo más bello**".*

*"La **Eucaristía no es un premio para los perfectos** sino un generoso remedio y un alimento para los débiles".*

ORACIÓN DE LOS FIELES:

S.- Confiando en la misericordia de Dios le presentamos nuestras necesidades.
Contestamos: **Conviértenos a Ti, Señor.**

1. Por toda la Iglesia: para que la vivencia de la fe en Jesús haga de cada una de nosotras y nosotros y de todos los bautizados misioneros convencidos del amor de Dios. Oremos. ***Conviértenos a Ti, Señor.***
2. Por los grupos de solidaridad y misiones de nuestras diócesis: para que nos ayuden a ser más conscientes de nuestro compromiso misionero con los empobrecidos de la tierra. Oremos. ***Conviértenos a Ti, Señor.***
3. Por nuestros misioneros y misioneras: para que su ejemplo de entrega generosa a los más pobres remueva nuestras entrañas y nos anime a portarnos como ellos. Oremos. ***Conviértenos a Ti, Señor.***
4. Por todas las personas con las que nos hermanamos por medio de los misioneros y misioneras: para que sientan nuestro compromiso y cercanía solidaria. Oremos. ***Conviértenos a Ti, Señor.***
5. Por todos nosotros: para que, transfigurados por la palabra de Dios, nos convirtamos en hombres y mujeres nuevos, dispuestos a ser misioneros allá donde sea necesario, saliendo de nuestras comodidades y rutinas, colaborando, apoyando, denunciando, arriesgando... Oremos. ***Conviértenos a Ti, Señor.***

S.- Padre-Madre Dios, que a la luz de la Resurrección comprendamos los momentos de pasión y sufrimiento como paso necesario a la vida plena de la Pascua. Por JNS.

OFRENDAS:

Presentación de un bastón:

Señor, aquí tienes un bastón. A veces ha sido signo del poder pero hoy queremos que signifique para nosotros apoyo en el cansancio, en la fatiga o en la enfermedad.

Cirio encendido:

Con este cirio encendido queremos reflejar lo que tenemos que ser los cristianos: LUZ EN MEDIO DEL MUNDO, como nos dice hoy el lema de esta jornada misionera.

Un plato o cuenco con sal:

Jesús, nos sueles decir que debemos ser como la sal que cura las heridas, da sabor a la comida e impide que se corrompa el agua del mar. Queremos dar sabor a Evangelio a todo lo que hacemos infundiendo alegría, paz y cariño a las personas con las que convivimos y a los pobres de este mundo.

Pan y vino para la Eucaristía:

Sin el alimento de la eucaristía sería imposible caminar como hijos e hijas de Dios. Que este pan y este vino sean para nosotros la fuerza y el aliento que necesitamos para anunciar la Buena Noticia de Jesús.

ACCIÓN DE GRACIAS - GRACIAS AL DIOS DE LA VIDA

“Gracias a la vida que me ha dado tanto”, canta el poeta.

“Gracias, Dios de la Vida”, oramos los creyentes.

Gracias, Padre-Madre Dios, hecho vida frágil y entregada en Jesús de Nazaret, que se nos da a conocer hoy en tanta gente buena que hay en el mundo.

Gracias a las Comunidades Cristianas que son semilla del Reino, por el que gastan la vida y la entregan con generosidad.

Gracias por la Iglesia en la que participan los misioneros de aquí y de allá: Iglesia, comunidad corresponsable, acogedora, liberadora, samaritana, cercana y comprometida en las luchas y esperanzas de los pobres.

¡Gracias de corazón, DIOS DE LA VIDA, presente en tantas realidades que nos ayudan a vivir con ilusión y entrega!

Vida y Dios, dos caras de la misma moneda, dos experiencias entrañablemente soldadas en el amor. MILA ESKER, AITA ONENA, BIHOTZ BIHOTZEZ!

ACTIVIDADES A REALIZAR DURANTE LA CAMPAÑA DE MISIONES DIOCESANAS

1. Encuentro para presentar la campaña a las Delegaciones de la Curia de Barria, responsables de pastoral de parroquias y centros educativos el día 27 de febrero a las 10.30 de la mañana en Barria.

Hacerles partícipes de las actividades programadas para que la animación misionera sea eje transversal en la pastoral.

2.-TALLERES DE FORMACIÓN sobre el lema de la campaña en los grupos de misiones y centros educativos con las Voces del Sur.

3.-ENCUENTRO MISIONERO ORACIONAL dinamizado por los misioneros que han estado en África el sábado 8 de marzo.

Lugar: ikastola Begoñazpi

Es una invitación a toda la diócesis a reflexionar sobre el lema de la campaña desde la mirada de África. Reflexionar sobre nuestro compromiso misionero

4.-RETIRO con el grupo del CURSO NORTE SUR fin de semana 16-17 de marzo

5.- SEMANA DE SENSIBILIZACIÓN Norte Sur en la escuela de Magisterio

VOCES DEL SUR

Este año vienen como voces del Sur 2 personas de Huaquillas, zona frontera de Ecuador con Perú: Lucho Campoverde, que está en la comisión diocesana de Derechos Humanos y Vicente Robles (Viche) agente de pastoral y Epiphanie Ndekerumukobwa de Rwanda.